



Euskal Herrian, 2007ko maiatzean

Agur terdi :

ETAk, nazio askapenerako euskal erakunde sozialista iraultzaileak, aurrera egin nahi duen gure herriaren geroan urratsak eman ditzazuen gonbitea luzatu nahi dizue.

Une klabe batean aurkitzen da Euskal Herria. Urteetan zehar gure herriaren aurkako zapalkuntzari aurre egiteko, herritar asko izan gara borrokari, askapen nahiari lotu garenok.

Eta ozen esan nahi dugu, urte guzti hauetan gure herri nortasunaren defentsa alor guztietan egin izan ez bagenu, gure eskubideak, eskura izan ditugun eta ditugun tresna guztiez defendatu izan ez bagenitu, bi Estaturen menpean Euskal Herria hil egingen zela. Etsaiaren zampaketari aurre egin izanagatik dugu, orain eta hemen, Herri aske izateko aukera.

Baina gaur egun, asko dago egiteko. Herri baten askatasunaren eta etorkizun duin baten aldeko bidea luzea, gogorra eta zaila da. Egungo marko juridiko- politikoak eragindako gure herriaren zatiketa, zapalkuntza eta inposaketa gaingiditu arteko borrokan guztien partehartzea ezinbestekoa da. ETA osatzen dugun gizon eta emakumeok demokrazia eta askatasun hitzak errealitate bihurtu daitezela dihardugu borrokan, milaka euskal herritar zintzo bezalaxe. Arlo kulturean, sozialean, ekonomikoan zein politikoa guzti-guztionean aportazioa beharrezkoa da, Euskal Herria hiltzen utzi nahi ez badugu, bederen.

Horregatik,

Euskal Herriaren alde egiten duzun lana inolaz ere ahanzi eta gutxietsi gabe eta duzun ahalmen ekonomikoa aintzat hartuz zuen ahalen araberako **150.000 €**-ko diru-laguntza eskatzera gatozkizue. Euskal Herriaren askapenerako eta eraikituzarako erabiliko dela bermatzen dizuegu eta, era berean, konpromisozko diru-laguntza gisa ulertzea nahiko genuke.

Erakundearekin harremanetan jartzeko bideak eta aukerak badituzuelakoan, bai gai honi buruz baita Euskal Herriaren askapen borrokari dagokion bestelako edozein gaiari buruz aritzeko ere gure atek zabal-zabalik dituzuela jakinarazi nahi dizuegu.

Esan gabe doa gure arteko harreman hauek erabateko diskrezioa eskatzen dutela. Segurtasun arrazoi jakinengatik ere, diru-aporazioa 20, 50 eta 100 eurotako billeteetan egikaritzea eskertuko genizueke.

Besterik gabe, agurtzen zaituztegu.



Euskadi Ta Askatasuna  
E.T.A.

